ABADIÑOKO UDALAREN ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, **"ABADIÑOKO UDAL-MUGARTEKO ZELAIETA AUZOKO SANEAMENDU-PROIEKTUAREN"** OBRAK FINANTZATU ETA EGIKARITZEKOA

Bilbon, 2019ko maiatzaren 24an

**BILDU DIRA:**

**JOSE LUIS NAVARRO jauna, Abadiñoko alkate udalburua, 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera jardun dena.**

**KEPA ODRIOZOLA AZULA jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2019ko maiatzaren 21ko erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.**

**PARTE HARTZAILEAK**

Parte-hartzaileek euren erakundeetako presidente eta ordezkari gisa parte hartzen dute. LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri eta, horretarako, hauxe

**HAUXE AZALDU DUTE:**

**LEHENENGOA.**
Abadiñoko udalerriak eskumenak ditu estolderia eta hondakin-uren tratamenduko alorretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

**BIGARRENA.**
Partzuergoaren funtsezko misioa da ur-hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea lurralde-eremua osatzen duten udalerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Horien azken aldaketa 2014ko azaroaren 5eko Batzar Nagusiak onetsi zuen.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ABADIÑO Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL **"PROYECTO DE SANEAMIENTO EN EL BARRIO ZELAIETA, T. M. DE ABADIÑO"**

En Bilbao, a 24 de mayo de 2019

**REUNIDOS**

**D. JOSE LUIS NAVARRO, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Abadiño, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 23 de mayo de 2019**

**D. KEPA ODRIOZOLA AZULA, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 21 de mayo de 2019**

**INTERVIENEN**

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de sus respectivas Entidades y en su representación, reconociéndose capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

**EXPONEN**

**PRIMERO.**
Que el Municipio de Abadiño tiene competencia en materia de alcantarillado y tratamiento de aguas residuales, en virtud de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

**SEGUNDO.**
Que el Consorcio tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 5 de noviembre de 2014.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

HIRUGARRENA.
Gaur egun, Partzuergoak saneamenduko lehen mailako sarearen zerbitzua ematen du; Udala, aldiz, bigarren mailako sarearen edo udal-estolderiaren arduraduna da.

TERCERO.
Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Saneamiento en Red Primaria, y el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria, o alcantarillado municipal.

LAUGARRENA.
Partzuergoko Zerbitzu Teknikoek "ABADIÑOKO UDAL-MUGARTEKO ZELAIETA AUZOKO SANEAMENDU-PROIEKTUA" idatzi dute, **HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMOKO (357.132,19 €)** kontrata bidezko egikaritze-aurrekontuarekin (BEZa barne) eta **LAU (4) hilabeteko** egikaritze-epearekin.

CUARTO.
Que los Servicios Técnicos del Consorcio han redactado el "PROYECTO DE SANEAMIENTO EN EL BARRIO ZELAIETA, T. M. DE ABADIÑO", con un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **TRESCIENTOS CINCUENTA Y SIETE MIL CIENTO TREINTA Y DOS EUROS CON DIECINUEVE CÉNTIMOS (357.132,19 €)** y un plazo de ejecución de **CUATRO (4) meses.**

Parte-hartzaileek proiektu horren edukia ezagutzen dute. Bertan definitu dira osatu beharreko estolderia-sare bat daukan Zelaieta auzoko hondakin-urak batzeko obrak. Horrez gain, hondakin-urak Abadiño udalerriko saneamendu-sarera garraiatu eta lotzeko beharrezko kolektoreak ere definitzen dira.

Los intervinientes conocen el contenido de dicho Proyecto en el que se definen las obras de recogida de las aguas residuales del barrio de Zelaieta que dispone en la actualidad de una red de alcantarillado que resulta preciso completar, así como los colectores necesarios para su transporte e incorporación a la red de saneamiento existente en el municipio de Abadiño.

BOSGARRENA.
Bi erakundeek interes handia dute "ABADIÑOKO UDAL-MUGARTEKO ZELAIETA AUZOKO SANEAMENDU-PROIEKTUAN" definitutako obrak egikaritzeko, hartara, udal-saneamenduaren egungo egoera nabarmen hobetzeko.

QUINTO.
Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "PROYECTO DE SANEAMIENTO EN EL BARRIO ZELAIETA, T. M. DE ABADIÑO", a fin de mejorar considerablemente la situación actual del saneamiento municipal.

SEIGARRENA.
Administrazio Publikoen arteko harremanetan bete beharreko lankidetza-printzipioa kontuan hartuta, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoa dela bide.

SEXTO.
Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 141.1.d de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

Parte-hartzaileek lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute, honako klausula hauen arabera:

Los Intervinientes proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

Abadiño Elizateko Udala
CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA
PRESIDENCIA LEHENDAKARITZA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

KLAUSULAK

**LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmen honen xede diren obrak "ABADIÑOKO UDAL-MUGARTEKO ZELAIETA AUZOKO SANEAMENDU-PROIEKTUAN" jasotakoak dira. Proiektu horren kontrata bidezko egikaritze-aurrekontua **HIRUREHUN ETA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMOKOA (357.132,19 €)** da, BEZa barne, eta **LAU (4) hilabeteko** egikaritze-epea dauka.

2013an URAk eta BBUPk egindako dokumentuan —*"Bilboko itsasadarreko kutsadura organiko eta ur beltzen kutsaduraren karakterizazioa eta horren modelizazioa saneamendu arloko erabakietarako eta jarduketa egoeren planteamendurako euskarri gisa, I. fasea: Gobela, Asua, Ballonti eta Granada ibaien arroak (2013ko urria)"*— jasotakoaren arabera, Abadiñoko Udaletxea, Ikastola eta pilotalekua Zelaieta auzoan daude kokatuta, eta, hain zuzen ere, auzo horretako isuria da Ibaizabalera zuzenean egiten diren eta lehentasunezko jarduketatzat hartu beharko liratekeen hamar isurietako bat.

Gaur egun, Zelaieta auzoko saneamendu-sareak maila handiko banaketa sistema du. Baina Ibaizabal ibaian isuri aurretik urak behar bezala banatzen diren arren, gaur egun, zuzenean isurtzen dira ibaira, izan ere, ez dago konexiorik estolderia-sare horren eta ibaiaren kontrako bazterretik doan lehen mailako saneamendu-sareko Matiena-Atxondoko kolektorearen artean.

"Abadiñoko udal-mugarteko Zelaieta auzoko Saneamendu Proiektuan" definitutako irtenbidearen bidez alternatiba bat eman zaio herrigune horretan arazketa-unitate txiki bat instalatzeko aukerari, aitzitik, beste jarduketa batzuk barne hartu dira: alde batetik, herrigunean bertan dagoeneko existitzen den barneko saneamendu-sarea osatzen duten bigarren mailako sareak eta, bestetik, udalerriko lehen mailako saneamendu-sarea handitzea, inkorporazio-kolektore bat egikarituz eta herrigunea Matiena-Atxondo kolektoreari lotuz.

CLÁUSULAS

**PRIMERA.- OBRAS OBJETO DEL CONVENIO**

Las obras objeto del Convenio son las correspondientes al denominado "PROYECTO DE SANEAMIENTO EN EL BARRIO ZELAIETA, T. M. DE ABADIÑO", que alcanzan un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de **TRESCIENTOS CINCUENTA Y SIETE MIL CIENTO TREINTA Y DOS EUROS CON DIECINUEVE CÉNTIMOS (357.132,19 €)** y un plazo de ejecución de **CUATRO (4) meses.**

Según se recoge en el documento elaborado en el año 2013 por URA y el CABB, *"Caracterización de la contaminación orgánica y fecal en la ría de Bilbao y modelización de la misma para soporte de decisión y planteamiento de escenarios de actuación en materia de saneamiento, Fase I: Cuenca del río Ibaizabal y Fase II: Cuencas de los ríos Gobelas, Asua, Ballonti y Granada (octubre de 2013)"*, el vertido de Zelaieta, barrio en el que se ubican el Ayuntamiento de Abadiño, Ikastola y frontón, constituye uno de los diez vertidos directos al Ibaizabal que deberían tener una actuación prioritaria.

Actualmente, la red de saneamiento existente en el barrio Zelaieta, dispone de un alto grado de separación de vertidos, y aunque previamente al vertido al rio Ibaizabal las aguas están bien separadas, se produce un vertido directo al cauce, ya que no hay conexión entre la citada red de alcantarillado y el Colector Matiena-Atxondo perteneciente a la red primaria de saneamiento que discurre por la margen opuesta del río.

La solución definida en el "Proyecto de Saneamiento en el Barrio Zelaieta, T. M. de Abadiño" constituye una alternativa a la instalación de una pequeña unidad de depuración en este núcleo de población e incluye actuaciones que son, en parte, redes secundarias que completan la red de saneamiento interior existente en el propio núcleo y, en otra parte, contempla la ampliación de la red primaria de saneamiento existente en el municipio mediante la ejecución del colector de incorporación y enlace de este núcleo con el Colector Matiena-Atxondo.

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PRESIDENCIA LEHENDAKARITZA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

Abadiño Elizateko Udala

Horrenbestez, behin obrak egikaritu ostean, *Kolektore Nagusia* (Matiena-Atxondo kolektoreko PR168 putzuaren eta PR16 putzuaren artean dagoena) Ur Partzuergoak kudeatutako saneamenduko lehen mailako sarearen parte izatera igaroko da, eta sei inkorporazioak (*I-01, I-02, I-03, I-04, I-05 e I-06)*, aldiz, bigarren mailako udal-sarearen parte izango dira. Erabiltzaile bakoitzaren hargune pribatuak bigarren mailako sare horrekin konektatuko dira.

Por tanto, una vez ejecutadas las obras, el *Colector Principal*, comprendido entre el pozo PR168 perteneciente al Colector Matiena-Atxondo y el PR16, pasará formar parte de la Red Primaria de saneamiento gestionada por el Consorcio de Aguas y las seis incorporaciones (*I-01, I-02, I-03, I-04, I-05 e I-06)*, pasarán a formar parte de la Red Secundaria de carácter municipal, a la que conectarán las correspondientes acometidas privadas de cada usuario.

**BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA**

Proiektu tekniko egokia Ur Partzuergoak idatzi eta onetsi du. Proiektu hori lanak kontratatu eta egikaritzeko oinarri gisa erabiliko da.

**SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO**

El Proyecto técnico correspondiente ha sido redactado por el Consorcio de Aguas, siendo aprobado por éste mismo. Dicho proyecto servirá de base para la contratación y ejecución de las obras.

**HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA**

Ur Partzuergoak lurzoruen erabilgarritasuna eta baimenak eskuratzeko konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen xede diren lan guztiak egoki egikaritzeko beharrezkoak direnak.

Abadiñoko Udalak hitzarmen hau sinatzearekin batera Ur Partzuergoari ahalmena ematen dio bere izenean lanak egikaritzeko behar adina eskari, baimen, eskabide eta izapide egiteko erakunde egokiei.

**TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO**

El Consorcio de Aguas se compromete a la obtención de las autorizaciones y disponibilidad de terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras objeto del presente Convenio.

El Ayuntamiento de Abadiño faculta mediante la suscripción del presente Convenio que el Consorcio de Aguas pueda realizar en su nombre cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

**LAUGARRENA.- OBRAK KONTRATATZEA**

Partzuergoko presidentea izango da obren kontratazio-organoa.

Ondorioz, berak izapidetu beharko du kontratazio-prozedura osorik, bere eskumen eta araubidearen arabera.

Hori guztia dela eta, Partzuergoko presidenteari dagokio obrak adjudikatzea, Kontratazio Mahaiak hala proposatuta, eta Abadiñoko Udalari horren berri ematea.

**CUARTA.- CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

El órgano de contratación de las obras será el Presidente del Consorcio.

En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

Por todo ello, corresponderá al Presidente del Consorcio la adjudicación de las obras, a propuesta de la Mesa de Contratación, dando cuenta de la misma al Ayuntamiento de Abadiño.

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA
PRESIDENCIA
LEHENDAKARITZA

Abadiño
Elizateko Udala

**BOSGARRENA.- OBREN ZUZENDARITZA**

Behin obra kontratatu eta beharrezko baimen guztiak eskuratu ostean, Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

**SEIGARRENA.- OBREN FINANTZAKETA ETA LURZORUAREN KUDEAKETA**

Obren finantzaketa partekatu egingo da. Alderdien arteko banaketa egiteko, hitzarmen honen xede den proiektuan jasotako jarduketa desberdinen xedea eta funtzionaltasuna hartuko dira kontuan. Proiektuan aurreikusitako hondakin-urak batzeko lanak egitera zuzendutako jarduketak Abadiñoko Udalari egokituko zaizkio; udalerriko lehen mailako saneamendu-sarera lotu eta batzeko obren egikaritzea, aldiz, Ur Partzuergoaren kontura izango da.

Obren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMOKOA (357.132,19 €)** da, **BEZa barne.** Ur Partzuergoak zenbateko osoaren %75 ordainduko du, eta Abadiñoko Udalak %25. Banaketa-portzentaje horiek bat datoz arestian deskribatu diren funtzionaltasunen arabera proiektuan barne hartu diren jarduketa desberdinen balorazioarekin.

Horrez gain, hitzarmen honen xede diren lanak egikaritzeko beharrezkoak diren lursailen besterentzeei dagokien kostua —kautelaz eta gutxi gorabehera **HAMABOST MILA EUROKOA (15.000 €)**— obrak egikaritzeko portzentaje berean banatuko da. Horrenbestez, Ur Partzuergoak besterentzeei dagokien kostu osoaren %75 ordainduko du, eta gainerako %25a, aldiz, Abadiñoko Udalak.

Lanak hasi eta egikaritzeko kalkulatu den programazioaren arabera, lanak 2020an hasiko dira, horrenbestez, urteko kuota **HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA HEMERETZI ZENTIMOKOA (357.132,19 €)** izango da **(BEZa barne).**

**QUINTA.- DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas, serán dirigidas por técnicos del Consorcio.

**SEXTA.- FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras será compartida, definiéndose el reparto entre las partes, en función del objeto y funcionalidad de las diferentes actuaciones contempladas en el Proyecto objeto del presente Convenio. Corresponderán al Ayuntamiento de Abadiño, las actuaciones destinadas a la construcción de las obras de recogida de las aguas residuales, y serán de cuenta del Consorcio de Aguas, la ejecución de las obras de incorporación y enlace a la Red General de Saneamiento existente en el municipio.

El importe de las obras, cuyo presupuesto base de licitación asciende a la cantidad de **TRESCIENTOS CINCUENTA Y SIETE MIL CIENTO TREINTA Y DOS EUROS CON DIECINUEVE CÉNTIMOS (357.132,19 €) (IVA incluido)**, será abonado en un porcentaje del 75% por el Consorcio de Aguas y del 25% por el Ayuntamiento de Abadiño, respondiendo estos porcentajes de reparto a la valoración de las diferentes actuaciones contempladas en proyecto de acuerdo a su funcionalidad según se ha descrito anteriormente.

Asimismo, el coste correspondiente a las expropiaciones de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras objeto del presente Convenio, cuyo importe asciende de forma cautelar y estimativa a **QUINCE MIL EUROS (15.000 €)**, se repartirá del mismo modo que la ejecución de las obras, abonando por tanto, el Consorcio de Aguas el 75% del coste total correspondiente a las expropiaciones y correspondiendo abonar el 25% restante al Ayuntamiento de Abadiño.

De acuerdo a la programación estimada para el inicio y ejecución de las obras, las obras se ejecutarán en el año 2020 y por tanto la anualidad asciende a **TRESCIENTOS CINCUENTA Y SIETE MIL CIENTO TREINTA Y DOS EUROS CON DIECINUEVE CÉNTIMOS (357.132,19 EUROS) (IVA incluido).**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Hori guztia ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin beharko dituzte nork bere gain hartutako betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

**ZAZPIGARRENA- EKARPENAK ORDAINTZEA**

Ekarpenaren ordainketa egin baino lehen, onetsitako hileko obra-ziurtagiriak igorri beharko zaizkio Abadiñoko Udalari. Azken honek ziurtagiri bakoitzari dagokion proportzioa ordainduko dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, seigarren klausulan ezarritakoari jarraiki.

Lanak amaitu eta jaso ostean, azken ordainketa bat egin beharko da, Amaierako Ziurtagiriari dagokion zenbatekoarekin bat datorrena. Bertan, benetan egikaritu diren lanen azken balorazioa eta obrek ukitutako lursailen benetako desjabetzeei dagokien zenbatekoa barne hartuko dira. Bi kontzeptuen ordainketa seigarren klausulan zehaztutako banaketaren arabera egingo da; horrenbestez, Ur Partzuergoari % 75 ordaintzea egokituko zaio, eta Abadiñoko Udalari gainerako % 25a.

**SÉPTIMA.- ABONO DE LAS APORTACIONES**

El pago de la aportación se realizará previo traslado de las certificaciones mensuales de obra aprobadas al Ayuntamiento de Abadiño, abonándose al Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia la proporción de cada certificación que corresponda, de acuerdo a lo establecido en la cláusula sexta.

Finalizadas y recepcionadas las obras, el importe del último pago, se corresponderá con el valor que resulte de la suma correspondiente a la Certificación Final, que incluirá la valoración final de las obras realmente ejecutadas y el importe de las expropiaciones de los terrenos realmente afectados por las obras; el abono de ambos conceptos, se efectuará de acuerdo al reparto definido en la cláusula sexta, correspondiendo el 75% al Consorcio de Aguas y el 25% restante al Ayuntamiento de Abadiño.

**ZORTZIGARRENA.- OBREN TITULARTASUNA, USTIAPENA ETA MANTENTZEA**

Ur Partzuergoak hartuko ditu obrak, eta Abadiñoko Udaleko ordezkari bati ekitaldi formalean parte hartzeko dei formala egingo zaio.

- Proiektuan deskribatutako *I-01, I-02, I-03, I-04, I-05 eta I-06* kolektoreak eta horiei atxikitako ondasunak eta eskubideak udal-titulartasunekoak izatera igaroko dira ekitaldian bertan, eta, ondorioz, Abadiñoko Udalak ondasun, eskubide eta instalazioen jabetzaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak hartuko ditu bere gain, bai eta instalazioen ustiapena eta mantentze-lana ere.
- *Kolektore Nagusia* saneamenduko lehen mailako sarean barne hartuko da eta, ondorioz, Ur Partzuergoak titulartasunaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak hartuko ditu bere gain, bai eta instalazioen ustiapena eta mantentze-lana ere.

**OCTAVA.- TITULARIDAD, EXPLOTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS OBRAS**

El Consorcio de Aguas realizará la recepción de las obras, a cuyo acto formal será convocado un representante del Ayuntamiento de Abadiño.

- Los colectores definidos en el proyecto como *I-01, I-02, I-03, I-04, I-05 e I-06* y los bienes y derechos adscritos a los mismos, pasarán, en el mismo acto, a ser de titularidad municipal y, en consecuencia, el Ayuntamiento de Abadiño asumirá los derechos y obligaciones derivados de la propiedad de los bienes, derechos e instalaciones, y la explotación y mantenimiento de estas últimas.
- El *Colector Principal* se incluirá en la Red Primaria de saneamiento y, en consecuencia, el Consorcio de Aguas asumirá los derechos y obligaciones derivados de su titularidad, así como su explotación y mantenimiento.

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA PRESIDENCIA LEHENDAKARITZA

Abadiño Elizateko Udala

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

**BEDERATZIGARRENA- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonek osatuko dute: Udaleko bi ordezkarik eta Partzuergoko beste bik.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.

**NOVENA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del municipio y dos por parte del Consorcio.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA**

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta parte-hartzaileak behartuko ditu sinatzen denetik aurrera eta Abadiñoko Udalak azken ordainketa egiten duen arte.

**DECIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y durará hasta que se realice el último pago del Ayuntamiento de Abadiño.

**HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUNGIPENA**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo kontratua indargabetzen denean iraungiko da.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmena zorrotz bete dadin edo indargabetu dadin eskatu ahalko du.

Hitzarmena indargabetuz gero, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

**UNDÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento

JOSE LUIS NAVARRO DONAIRE
**Abadiñoko Udaleko alkate-udalburua**
Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Abadiño

ABADIÑO ELIZATEKO UDALA

CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA
PRESIDENCIA
LEHENDAKARITZA
BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA

KEPA ODRIOZOLA AZULA
**Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea**
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia